

5. IKASGAIA

GANBIO-LETRAREN BERMEA, ORDAINKETA ETA AKZIOAK

Laburpena

1. ABALA
 - 1.1. Elementu pertsonalak eta formazkoak
 - 1.2. Abalaren efektuak
2. GANBIO-LETRAREN ORDAINKETA ARRUNTA
 - 2.1. Ordainketarako aurkezpena
 - 2.2. Ordainketa
3. AKZIO GANBIARIOAK
 - 3.1. Akzio zuzena
 - 3.2. Atzerabideko akzioa
4. OBLIGATU GANBIARIOEN ERANTZUKIZUN SOLIDARIOA
5. AKZIO KAUSALA
6. ABERASTE GANBIARIOAREN AKZIOA

1. ABALA

‘Abal’ hitza hizkuntza arruntean erabili ohi da ‘fidantza’ hitzaren sinonimo bezala eta baita edozein kontratu edo egintzen gaineko bermea adierazteko ere. Baina, hertsiki berme ganbiario berezi bat adierazten duen terminoa da. Abalaren deklarazio bidez, pertsona batek (abalemaileak) hartzen du beste baten (abalatuaren) alde ganbio-letraren ordainketa osoa edo partziala bermatzeko obligazioa. Abalemaileak ganbio-letraren edukitzailearen aurrean duen erantzukizuna solidarioa da bai abalatuarekin (LCCh 37.II art.) bai eta gainontzeko obligatu ganbiarioekin ere (LCCh 57 art.).

Izaera juridikoari dagokionez, esan behar dugu aldebiko deklarazio ganbiario honen kausa berme ematea dela (*causa garantiae*), ganbio-letraren ordainketa bermatzea. Berme hau pertsonala da. Horregatik noren alde egiten den ezarri behar da, bestela legeko presuntzio bidez ezarriko da abalatu (LCCh 36.III art.).

Berme hau 'autonomia' dela esan ohi da (LCCh 8 art.). Kode Zibileko fidantzarekin alderatuaz, gogora dezagun fidantza-emailearen obligazioa ez dela galdagarria, bermaturiko obligazioa baliozkoa ez bada (KZ 1822.1, 1824, 1825.art.). Baina abalaren kasuan bermatutako obligazioa deuseza izanda ere, abala baliozkoa izango da. Erregela honen salbuespena formazko akatsagatiko deuseztasuna da (LCCh 37.I art. in fine). Salbuespenezko kasu horretan ezik, abalemailearen obligazioaren baliozkotasuna ez dago abalatuaren obligazioaren baliozkotasunaren menpe. Nahikoa da abalatu itxuraz sinatzaile izatea abala baliozkoa izan dadin hirugarrenetikiko. Ondorioz, posible da abala baliozkoa izatea nahiz eta ganbiarioki erantzule ez den subjektu bat abalatu (ad. 'nire erantzukizunik gabe' egin duen endosugilea), abalemaileak bere leku ganbiarioa hartuko du. Abala baliozkoa izango da baita ere abalatu ezgaia balitz bere deklarazio ganbiarioa sinatu zuenean; abalatuaren sinadura falsifikatu bada eta ohiko arreta jarriaz ezin izan bada jakin edota gerora abalatuaren deklarazioa deuseztatua izan bada.

LCCh 37.I artikulua irakurrita kontraesana dagoela dirudi, abalemaileak abalatuak baino kasu gehiagotan erantzun behar duela, alegia. Abalemaileak kasu guztitan erantzuten du, formazko akatsek nulitatea sortzen dutenean ezik. Ezin ditu abalatuaren salbuespen pertsonalak erabili. Abalemailearen erantzukizunaren muga abalatuaren *erantzukizun formala* da. Hobe esanda, honenen esanahia ez da abalemaileak abalatuak bezala erantzuten duela, abalatuaren ganbiar egoera berberan erantzuten duela baizik. Hemen ere gogoratu ezinbestekoa dela jakitea nor abalatzten den (LCCh 36 art.) horren arabera egongo baita abalemailearen erantzukizuna.

Subjektuen arteko harremanei dagokienez, abalemailea eta hirugarrenen arteko harremanetan abalemailea abalatu bezalako obligatu bat da, ganbiarioki leku berbera okupatzen du, baina ezin ditu haren salbuespen pertsonalak erabili (LCCh 37.I art.). Abalarekin zor osoa edo zati baten ordainketa berma dezake (LCCh 35. art. I. in fine). Abalemaileak letra ordainduz gero, abalatuari eska diezaioke ordaindutakoa (LCCh 37.II art.)

1.1. Elementu pertsonalak eta formazkoak

Elementu pertsonalak dira abalemailea, abala sinatzen duena, eta abalatu, bermatua den pertsona. Abalemailea ohikoena da hirugarren bat izatea, baina

ganbio-letrako sinatzailereren bat ere izan daiteke (LCCh 35.II art.). Gainera, abala eman dezakete pertsona batek edo gehiagok, aldiberean edo modu jarraian. Honela 'koabala' onartu egiten da (nahiz eta legean ez ezer esan). Koabalemaile hauen erantzukizuna oinarrituko da solidaritate ganbiarioan eta beren barneko harremanetarako aplikatuko da beren artean erabakitakoa (KZ 1137 eta 1145 art.). Bestalde, abalemaile batek pertsona bat edo gehiago abala dezake.

Abalatua izan daiteke edozein obligatu ganbiario. Nahitaezkoa da abalatua nor den adieraztea, bere izena edota bere posizio ganbiarioa (ad. onartzailea). Hau funtsezko elementua da, abalemailearen erantzukizuna zehazteko. Adierazten ez bada, legeak presuntzio bat ezartzen du, LCCh 36.IV artikuluan. Izango da onartzailea eta onartzailerik ez badago, igortzailea.

Elementu formalei dagokienez, esan behar da abala ganbio-letran bertan edo eranskinean egin behar dela (LCCh 36.I art.). Dokumentu bananduan eginiko abalak ez du abalaren efekturik (LCCh 36.III art.). Honek ez du abal ganbiarioaren baliorik izango, baina beharrezko galdapenak betez gero, fidantza bezala balio izan dezake. Abala adierazteko 'abal bidez' klausula ezartzen da (LCCh 36.I art.), abalemailearen sinadurarekin (ik. LCCh 36.II art. letraren aurrekaldean jarritako sinadura).

Bermearen mugatu egin daiteke kopuru maximoa ezarriaz (LCCh 35.I art.). Posible da existitzen diren deklarazio ganbiarioak nahiz etorkizunekoak abaltzea eta posible da ere abalematea mugaegun ondoren, beti ere, abalatua bere obligazio ganbiariorik aske geratu ez den bitartean (LCCh 35.III art.).

1.2. Abalaren efektuak

Abalak efektuak sor ditzan galdatzen da abalatutako deklarazioa itxuraz baliozkoa izatea. Haren formazko akats batek baliogabetuko luke abala (ad. sinadura falta). Abalemailea edukitzailearen aurrean erantzule ganbiario autonomo bihurtzen da eta abalatuak hartuko lukeen leku ganbiarioa hartzen du, nahiz eta bata edo bestearen erantzukizunaren eremua bat etorri ez. Gerta daiteke abalemailea erantzule izatea eta abalatua ez (LCCh 37.I art) honen deklarazio ganbiarioa deuseza bada. Gerta daiteke ere abalatuak jar ditzake salbuespen pertsonalei esker ordainketatik aske geratzea edo bere

erantzukizuna murriztu ahal izatea. Gerta daiteke ere abalemaileak kreditu ganbarioaren zati bat besterik ez bermatzea.

Abalemailea izan daiteke obligatu zuzenarena edo atzerabideko obligatu batena. Kasu honetan ordainketa eza bermatzen du, ez du onarpena ezarik bermatzen (LCCh 50 art.), baina mugaegun aurreko atzerabideko akzioa jasan beharko du LCCh 50 artikuluko b) eta c) kasutan.

LCCh 57 artikuluan ganbiar solidaritatea jasotzen da. Ganbio-letraren sinatzaile guztiek modu solidarioan erantzuten dute. Ondorioz, edukitzaileak aukera dezake noren aurka ekin: guztien aurka (batera edo banan bana) edota bat edo batzuren aurka. Ez du ordenarik errespetatu behar. Fidantzan ez bezala, edukitzaileak ez du eskusio-eskubiderik (KZ 1831.2 art.) Edukitzaileak ez dio lehendabizi abalatuari ordainketa eskatu behar eta ondoren abalemaileari. Abalemaileak ordainduz gero, eskuratuko ditu letratik eratorritako eskubide guztiak: bai abalatuaren aurka bai eta abalatuaren aurrean erantzule direnen aurka.

Abalemaileak aurka jar ditzaken salbuespenak izaten dira prozedurazkoak, dokumentalak (ad: formaltasun baten falta, abalaren formazko akatsa, abalatuakiko obligazioaren formazko akatsa) edota bere salbuespen pertsonalak: gaitasun eza, hartzekoduen ganbarioarekiko izan ditzakenak (ad. afiantzamenduko itunean present egonagatik), *non petendo* ituna, edota ordainketaren geroratzeko ituna. Ezin ditzake abalatuaren salbuespen pertsonalak jarri (ad. haren gaitasun eza, ordezkapen eza, firma faltsua).

2. GANBIO-LETRAREN ORDAINKETA ARRUNTA

Ganbio-letra ordaindua izan dadin igortzen da baina ordainketa era askotakoa izan daiteke. *Ordainketa arrunta* esaten zaio igorpenduak egiten duenari, igortzaileak eman izan dion agindua beteaz eta *ez-ohikoa* beste norbaitek (ganbio-letraren sinatzailearen batek edo hirugarren batek) egindakoa. Ordainketa baita ere esan daiteke dela *borondatezkoa*, edukitzaileak eskatutakoan egin bada, ala *nahitaezkoa*, akzio ganbarioen ondorioz lortu izan bada. Kalifikatu daiteke ere *zuzena*, onartzaileak edo bere abalemaileak egindakoa, ala *atzerabidekoa*, atzerabideko obligatu ganbarioaren batek egindakoa. Izan daiteke ere mugaegun aurrekoa ala mugaegun ondorengoa.

Edozein kasutan gogora dezagun ganbio-letra aurkezpenerako titulu bat dela. Horrek esan nahi du ordainketa egiteko beharrezkoa dela hartzekodunak letra igorpenduari aurkeztea, gerta daitekela honek ez jakitea mugaeguna iristean hartzekoduna nor izango den.

2.1. Ordainketarako aurkezpena

LCCh 43 artikularen arabera, ordainketarako aurkezpena egitea derrigorrezkoa da mugaegunean edota ondorengo bi egunen buruan. Hau da ganbio-letraren ordainketa galdatzeko modua, gero bere kasuan zordunaren berankortasuna ezarri ahal izateko eta ordainketa ezagatik atzerabideko akzioa jartzeko. Ezinbesteko kasuan ere ez da obligazio hau salbuesten, aurkezpena egiteko epea luzatu egiten du legeak 30 egunez (LCCh 64 art.) eta edukitzaileak hala adierazi behar dio bere endosugile izan denari (ezinbesteko kasu barruan ez dira sartzen ezinasun edo zailtasun pertsonalak).

Zentzu teknikoan, ordainketarako aurkezpena edukitzaileari ezartzen zaion obligazio bezala agertzen da (LCCh 43, 44 art.), salbuespen bakarrarekin: ez da beharrezkoa onarpen ezagatik protesta altxatu izan denean (LCCh 51.lv art.). ‘Gasturik gabe’ klausulak ere ez du obligazio hau salbuesten (LCCh 56.II art.).

Baina legeak ez du erregela orokorrik ezartzen obligazio hau ez betetzeak dituen ondorio juridikoekin. Bi kasu zehatzetarako esaten du ordainketarako aurkezpenik ez egiteak atzerabideko akzioak galtzea ekarriko duela (LCCh 63.I.a eta c art.): a) letra erakusterakoan edota erakusten denetik epe baten barruan ordaindu beharrekoa denean eta c) letra ‘gasturik gabe’ klausuladuna denean. Soilik bi kasu hauentzat ezartzen du atzerabideko akzioa galtzearen ondorioa. Orduan, erregela orokorrik ezean, ondorio hau ganbio-letra orotara zabaldu behar al da? Hori oso ondorio gogorra da eta legeak ez du hala ezarri arruntagoak diren gainontzeko kasuetarako (LCCh 63.I.b art.). Beraz, legea hertsiki interpretatuaz, atzerabideko akzioa galtzearen ondorioa aipaturiko bi supostu horietara mugatzen da soilik. Gainera, LCCh 43.I. artikulua arau inperatibo baten antzera ‘... *deberá presentar la letra al pago...*’ esan arren, edozein kasutan, akzio ganbiario zuzenik ez da galtzen ordainketarako aurkezpenik ez egiteagatik (LCCh 63.I art.). Dena den, horrek ez du esan nahi aurkezpena ez egiteak inolako ondoriorik izango ez duenik. Aurkezpena eginez

akzio zuzena ekidin izan balitz, gastu judizialak auzi-jartzaileari egotzi izango zaizkio. Diskutigarriagoa da zordunak galda al diezaioke aurkezpen ezagatik eratorritako kalte-galeren ordainketa. Aurkezpenik ezean zordunak ganbio-letrako kopurua gordailatu egin dezake, zorretik aske geratuaz (LCCh 48.art.).

Ordainketarako aurkezpenak balioa izan dezan, berari dagozkion efektu juridikoak sor ditzan, egin behar da beharrezko garaian eta lekuan, ordainketa galdatzeko eskubidea duen pertsonak eta ordainketa egiteko izendatu edo obligatu izan den pertsonari.

Erregela orokorra da mugaegun ondoko bi lanegunen buruan egin behar dela (LCCh 43.I art.). Gogoratu mugaeguna finkatzeko modu desberdinak daudela (LCCh 38 art.): data zehatza, igorpen-datatik atatik epe bat, 'erakusterakoan' (ordainketarako aurkeztu beharko da urte beteko epean, baina epea alda daiteke, LCCh 39 art.) ala erakusten denetik epe bat (onarpenerako aurkeztu beharko da urte beteko epean, baina epea alda daiteke, LCCh 27 art.). Bankuen eskutan dauden ganbio-letrak ordainketarako aurkezteko modua mugaeguna baino lehen igorpenduari abisua bidaltzea izten da (LCCh 43.III art.)

Ohikoena da ordainketarako aurkezpena igorpenduaren helbidean egitea. Helbide hau igorpenduaren izenaren ondoan agertzen dena izango da, besterik adierazi ezean. Dena den, helbideratutako ganbio-letren kasuan, kreditu-erakundeek ordainketarako aurkezpena kamera edo konpentsazio sistema batetan egin dezakete (LCCh 43.II art.).

Aurkezpena egin behar du ordainketa jasotzeko legitimatua dagoenak, ganbio-letraren edukitzaileak (LCCh 43 art.). Edukitzaile legitimoa izan behar du, bere eskubidea justifika dezakena. Izan daiteke: endosu-hartzailea (LCCh 19 art.), lagatua (ad. oinordekoa) edo mandatu-hartzailea (LCCh 21 art. kobrurako endosuaren kasuan). Ez dago legitimatuta besterik gabe dokumentuaren edukitzaile dena (honek onarpenerako aurkezpena egin dezake baina ez ordainketarako, LCCh 25 art.) ez eta ganbio-letra fede txarrez edo arduragabekeriaz eskuratu izan duena ere (LCCh 19 art.). Ondorioz, zordunak zihurtatu beharko du: edukitzailearen nortasuna, bera dela hartzekodun legitimatu moduan izendaturik agertzen dena eta endosu-katearen zuzentasuna (ez sinaduren autentikotasuna). Zurizko ganbio-letra edo zurizko endosuaren kasuan, nahiz eta LCCh 19 artikuluko presuntzioa egon, komenigarria da

edukitzailearen nortasuna ezagutzea. Hau ez da legitimaziozko arazo bat, ordainketa nori egingo zaionaren konstantzia jasotzea komeni da bada ez bada ere.

Aurkezpena egin behar zaio ordainketa egin behar duen pertsonari (LCCh 1.3 art.). Igorpendu anitzen izatearen kasuan, ganbio-letra onartugabea bada nahikoa da aurkezpena edozein igorpenduri egitea. Baina letra onartu izan bada, onartzaile guztiei aurkeztu beharko zaie (8 eguneko epean) eta ez hauen abalemaileei (LCCh 44 art.).

2.2. Ordainketa

Mugaeguna ailegatu baino lehen, edukitzailea ez dago ordainketa jasotzera behartuta, baina era berean ez dauka zatikako ordainketa ukatzerik (LCCh 45 art.) Zatikako ordainketa egiten bada, igortzaileak gertakizun hau ganbio-letran adieraz dezan eska dezake igorpenduak, eta baita ere horren ordain-agiria ematea. Horrela, ordainketa partziala ganbio-letran azalduko denez, fede oneko hirugarren batek zenbateko osoa eskatuko balu, salbuespen dokumentala jarri ahal izango luke igorpenduak.

Ordainketa arruntuak ganbiar-kreditua iraungi egiten du, eta ganbio-letrako obligatuak zorretik aske gelditzen dira (LCCh 45 eta 60 art.). Ordainketa egin duenak ganbio-letra berreskuratzeko eskubidea dauka eta eramaileari 'jaso dut' ('recibí') delako agiria eska diezaioke. Baina ordainketa kreditu-erakunde bati egin badio ordainketa kreditatzen duen agiria besterik ez du jasoko (LCCh 45 art.).

Igorpenduak (onartzaile izan, ala ez) eginiko ordainketa arruntak obligazio ganbiario guztiak iraungi egiten ditu. Baina ordainketa apartekoa baldin bada, hau da, igorpendua ez den batek egiten badu, ondorioak ordaintzen duen pertsonaren egoeraren arabera izango dira.

- Endosugile batek ordainduz gero, iraungi egiten dira ondorengo endosugileen eta hauen abalemaileen obligazio ganbiarioak, baina bizirik iraungo dute aurreko endosugileenak, igortzailearenak, onartzailearenak eta hauen abalemaileenak.

- Igorpenduak ordainduz gero, aske geratuko dira endosugile guztiak eta beren abalemaileak. Ordainketa erreklamatu ahal izateko onartzailea eta bere abalemailea geratuko dira soilik.
- Onartzailearen abalemaileak ordainduz gero, onartzeileari eskatu ahal izango dio. Onartzaileak eginiko ordainketak obligazio ganbiario guztiak iraungitzen ditu.

Ordaindu duenak beste obligatu ganbiario bati ordainketa birpoltsa dezan eska badiezaioke, galdatu ahal izango duen zenbatekoak barne biltzen ditu: ordaindutako kopurua, ordaindutako datatik aurrera sortutako interesak eta eginiko gastuak (LCCh 59 art.).

3. AKZIO GANBIARIOAK

Akzio ganbiarioak dira onarpen ezagatik edo ordainketa ezagatik ganbio-letra baten edukitzaileari ematen zaizkion baliabideak, letra sinatzeagatik obligatuta dauden pertsonen judizialki galdatu ahal izateko. Akzio hauek jarri ahal izateko funtsezko ukanbeharra da obligatu ganbiarioen bat izatea. Bere deklarazioak dokumentuan jasota egon behar du igortzaile, endosugile, onartzaile edo abalemaile moduan, norberak edo ordezkari bidez sinatuta.

Printzipioz akzio hauen indarra ez da obligazio ganbiarioratik kanpo dauden harremanen ondorioz gutxienduko. Baina akzio ganbiarioek ez dute edukitzaileek beren eskubideen babespen juridikzionala lortzeko dituzten bide guztiak agortzen. Badituzte beste bide batzuk ere, akzio kausala eta aberaste ganbiarioa, alegia.

Sistema ganbiarioak bi akzio-mota bereizten ditu: akzio zuzena (acción directa) eta atzerabideko akzioa (acción de regreso) (LCCh 49.I art.). Bakoitzaren eraentza eta ondorioak desberdinak dira. Akzioa jasateko pasiboki legitimatuak dauden pertsonak desberdinak dira. Akzio zuzena onartzailea edo bere abalemailearen kontra jartzen dena da eta atzerabideko akzioa igortzaile, endosugile edo hauen abalemaileen kontra jartzen dena.

Pertsona hauek bere sinadura jartzearekin hartzen duten obligazioaren izaera desberdina da. Onartzailea obligatu zuzena eta nagusia da. Berak ordainduz gero, tituluari lotuta dauden harreman guztiak iraungi egiten dira. Igortzailea eta

endosugileak aldiz, ganbio-letrak amaiera ona izatearen arduradun dira. Hauen aurkako akzioa irekiko da ordaintzeko agindua duenak (hau da, igorpenduak, onartzailea izan ala ez) mugaeguna iritsi eta ordaintzen ez duenean (atzerabideko akzioa mugaeguna iritsi aurretik ere jar daiteke zenbait kasutan, LCCh 50.II art.). Hauetariko norbaitek ordaintzearen kasuan, bere alde repetizio-eskubidea sortzen da aurretik dituen erantzuleen aurka (aurreragoko endosugileak eta igortzailea) eta onartzailearen aurka (baldin badago).

Beraz, ganbio-letratik eratortzen diren akzio hauek iraun egiten dute, aktiboki legitimatutako pertsona ordainketa egin duen igortzailea edo endosugilea izanik. Horren ondorioz uler daiteke legeak atzerabideko akzioa jartzeko ukanbehar formal zorrotzagoak ipintzea. Akzio zuzenaren kasuan ordainketarako aurkezpena, protestoa edo aitopen baliokideak egin ez arren akzioa ez da galtzen. Baina atzerabideko akzioaren kasuan, edukitzaileak ganbio-letra kaltetzen utziz gero, akzioa galdu egiten du. Edukitzaileak, igortzaile eta endosugileekin batera, ganbio-letrak amaiera ona izan dezan kooperatu behar du. Edukitzaileak ganbio-letra aurkeztu behar du onarpenerako eta, mugaegunaren ondoren, ordainketarako, aurkeztu izan duenaren konstantzia utziaz. Gainera, igortzaile eta edukitzaileek, igorpenduaren ordeztu beharko dute, honek hala egiten ez badu. Edukitzaileak dagozkion betebeharrak egiten ez baditu, gainontzekoen zama desagertzen da. Edozien kasutan, akzio ganbiario mota biak batera egikari daitezke (LCCh 57 art.).

1. Akzio zuzena

Akzio hau jartzeko aktiboki legitimatuta dago ganbio-letraren 'eramaile legitimoa' (LCCh 57.II art.). Horretarako edukitzaileak bere eskubidea justifikatu behar du etendurarik gabeko endosu-katearen bidez (LCCh 19 art.). Baina legitimatuta egon daitezke baita beste zenbait pertsona ere:

- a) Legitimatuta daude edukitzaileari ordainketa egin dioten atzerabideko obligatuak (igortzaile, endosatzaile edota beren abalemaileak). Hauek, akzioa jartzerakoan ez dute ordaindutako hartzekodunaren zesiiodun bezala jardungo, kreditu ganbiarioaren tituludun autonomo moduan baizik.
- b) Legitimatuta egon daiteke letraren lagapendun (zesiiodun) bat: protesto ondorengo endosuagatik, endosu arrunta ez den bizidunen arteko beste

titulu bati esker letra eskuratu izanagatik (ad. letraren endosu gabeko entrega) edo banatu gabeko jarauspeneren oinordeko, legatu-hartzaile edo administratzaile izateagatik. Letraren zesiadun (lagapendun) denak edukitza legitimoa akreditatu beharko du, bere erreklamazioari lagapeneko dokumentua atsekituaz. Baina kasu honetan, auziperatuak baditu bere babespenak: lagapeneko dokumentua inpugnatu egin dezake eta lagapenduari jarri ahal izango dizkio lagatzailearen aurka dituen salbuespen pertsonalak (hau da lagapen arruntaren eta endosuaren arteko desberdintasunik nagusia) (LCCh 67.II.2 art.).

- c) Legitimatua dago ere (bere borondatez edo ta aurreragoko beste akzio zuzen baten ondorioz) ganbio-letra ordaindu izan duen onartzailearen abalemailea (LCCh 37 art.).

Akzio honetan legitimatu pasiboa onartzailea da eta, bere kasuan baita bere abalemailea ere (LCCh 49.I art.). Obligatu solidarioak dira (LCCc 57.I art.) eta ez dago exkusio-eskubiderik ez eta banantzeko eskubiderik ere (KZ 1837 art.). Egoera problematikoa gerta daiteke onartzailea ez bada igorpendu bera. Legea ez da oso argia puntu honetan. Doktrinaren iritziz ez dirudi onarpen-klausula igorpendua (edo bere ordezkaria) ez den beste batek sinatuz gero, onartzailearen lekua hartuko lukenik, eta ondorioz, akzio zuzenaren subjektu pasiboa izango litzatekenik. Onartzailearen eta igorpenduaren artean harremanik ez badago, edukitzaileak ez luke akzio zuzenik jarri. Baina, edukitzaileak igorpenduaren kontrako akzio zuzena izango luke, beti ere honen eta onartzailearen artean dokumentuan isladatzen ez den loturaren bat badagoela frogatuko balu.

Akzio zuzena jartzeko baldintzei dagokionez, ez da protestorik ez eta antzerako deklaraziorik galdatzen (LCCh 49.II art.). Ganbio-letra ordainketarako ez aurkezteak ere ez du akzio zuzenik kaltetzen (LCCh 43 art.). Beraz, akzioa jartzeko edukitzaileak ez du frogatu behar onartzaileari errekerimendua egin izan dionik. Hala ere, ordaiketarako aurkezpena ez egiteak ondorio ezezkor batzuk izan ditzake, esate baterako auziko gastuak eta, agian, kalte ordaina (eztabaidatua, zordunak egin dezaken gordailuagatik, LCCh 48 art.).

Akzioaren preskripzio-epa mugaegunetik hasi eta hiru urtetakoa da (LCCh 88 art.). Zenbait kasutan (konkurto kasutan) mugaegun aurretik jar daiteke atzerabideko akzioa, baina ez zuzeneko akzioa (LCCh 50 art.). Erreklamazioaren eduki ekonomikoari dagokionez, akzio zuzenari eta

atzerabidekoari tratamendu bateratua ematen zaie. Baina bereiztu egiten dira: ordaindu izan ez zaion edukitzaileak jarritako akzioa (LCCh 58 art.) eta ganbio-letra ordaindu ondoren diru-kopurua errenboltsatu nahi duenak jarritako akzioa (LCCh 59 art.). Lehenengo kasuan erreklamatu den diru-kopuruan sartzen dira: 1) Ganbio-letrako kopurua eta, bere kasuan, ezarritako interesak; 2) berandutzagatiko interesak eta 3) bestelako gastuak (ad. protestoa eta jakinarazpenak). Bigarren kasuan, ganbio-letra ordaindu eta errenboltsatu nahi duenak jarritako akzioaren kasuan, egoera desberdinak ager daitezke: i) bigarren mailako akzio zuzena, hau da, onartzailearen abalemaileak bere abalatuaren aurka jarritakoa; ii) atzerabideko akzio baten ondorengo akzio zuzena edo iii) atzerabideko obligatu ganbiario baten borondatezko ordainketa osteko akzio zuzena. Kasu hauetan erreklamatu den diru-kopurua kalkulatzeko erreferentzia ordaindutakoa izango da (LCCh 59 art.).

3.2. Atzerabideko akzioa

Atzerabideko akzioa edukitzaile legitimoak berekiko ganbio-letraren amaiera onaren erantzule eta hauen abalemaile direnen aurka duena da. Izan daiteke ordainketa ezagatik edo onarpen ezagatik. Mugaegunaren osteko atzerabidea ordainketa ezagatik izango da (LCCh 50 art.). Ordainketa eza izan daiteke osoa edo partziala, ez du axola, atzerabideko akzioan galdatuko den kopurua aldatuko da besterik gabe. Mugaegunaren aurreko atzerabidea, berriz, ordainketaren zihurtasun ezagatik izango da (LCCh 50 II art.): a) onarpena osoki edo partzialki ukatzeagatik; b) igorpendua konkurtso egoeran deklaratzegatik edo hari egindako enbargua nahikoa ez izateagatik edota c) ganbio-letraren onarpenerako aurkezpena egitea debekatu izan duen igortzaileari konkurtsoa deklaratu izanagatik. Kasu hauetan akzioa letraren mugaeguna iritsi aurretik jar daiteke, baina azken bi hauetan posible da ere epaileari mugaegunerarte itxaroteko eskatzea. Mugaegun aurretik atzerabideko akzioa jartzea borondatezkoa da. Nahi izanez gero, mugaegunera arte itxaron daiteke eta orduan eskubidea baliatzeko urratsak ematen hasi.

Legitimazio aktiboari dagokionez, ez daude legitimatuak igortzailea eta onartzailearen abalemaileak, hauek duten bakarra akzio zuzena da. Legitimatuta dago tituluaren beste edozein edukitzaile, hauen abalemaileak eta auzipetuaren abalemailea. Pasiboki legitimatuak, berriz, ganbio-letraren amaiera onaren ardura dutenak dira (LCCh 57 art.): igortzailea, endosugileak,

(onarpenarekiko edo/eta ordainketarekiko beren erantzukizuna salbuetsi ez dutenak) eta baten eta besteren abalemaileak.

Akzioa jartzeko zenbait formaltasun betetzea eskatzen da. Batez ere, aktiboki legitimatuta daudenei beren eskubideak babestu ahal izateko ganbio-letra onarpenerako edo ordainketarako aurkeztea galdatzen zaie eta bata edo bestea lortu ezean, horren konstantzia jasotzea, hau da, azken finean protestoa altxatzea edo deklarazio baliokidea egitea (LCCh 51 eta 63.I.b art.). Hau da erregela orokorra. Dena den, atzerabideko akzioa jartzeko galdapenak desberdinak dira mugaegun aurretik edo ondoren egiten bada.

Atzerabideko akzioa mugaeguna iritsi baino lehenago jarri ahal izateko supostuak lege zehaztuta daude (LCCh 50.II art.). Lehenengo supostua igorpenduak onarpena erabat edo partzialki ukatzearena da. Onarpena osoki ukatzen denean protestoa edo aitorpen baliokidea beharrezkoa da. Baina onarpena partzialki ukatuz gero protestoa ez da beharrezkoa izango, letra partzialki onartzearen deklarazioak zati bat ukatzen denearen deklarazioa adierazten bait du. Deklarazio honek data eta igorpenduaren sinadura darama. Hurrengo supostuak igorpenduaren konkurtsoa eta onarpena egitea debekatutako ganbio-letraren igortzailearen konkurtsoa dira. Kasu hauetan edukitzaileak atzerabideko akzioa jarri ahal izateko ez du propestorik behar, nahikoa da konkurtsoaren autoa aurkeztea.

Atzerabideko akzioa, ganbio-letra ez ordaintzeagatik, mugaegunaren ondoren jartzeko erregela orokorra da edukitzaileak konstatatzea letra ordaintzeko agindua duenari (igorpenduari) aurkeztu izan diola eta honek ordainketa guztiz edo partzialki ukatzeagatik, protestoa edo aitorpen baliokidea jaso duela (LCCh 43 eta 51 art.). Arestian azaldu dugunez ordainketarako aurkezpena egitea inperatiboa ote den zalantzan jartzen da (Ik. LCCh 48, 56 eta 63 art.). Dena den, legeak ez du 'obligazio' honen kunplimendua argi eta garbi inposatzen. Protestoa jasotzea edo aitorpen baliokidea egitea, ordea, inperatiboa da legezko salbuespen batzuetan ezik (ad. 'gasturik gabe' klausuladun letren kasuan, LCCh 56 art.; onarpen ezagatik protestoa altxa izan bada, LCCh 51.II eta V art. edota igorpenduaren konkurtso kasuan, LCCh 50.II.b,c art.). Gainera, legeak endosugile eta igortzaileari beste zenbait komunikazio eta jakinarazpen egitea galdatzen du. Komunikazio hauek ez egiteak ez du atzerabideko akzioa galarazten ('kaltetzen'), baina kulpagatiko erantzukizuna dakar berekin (LCCh 55 art.).

Akzioa baliatzeko preskripzio-epea urtebetekoa da edukitzailearentzat eta sei hilabetekoa endosugilentzat (LCCh 88 art.). Erreklamazioaren eduki ekonomikoa, hau da, zenbateko diru-kopuru galdagarrian, aintzat hartzen dira ganbio-letrako kopuru nagusia, berandutzagatiko interesak eta gastuak (LCCh 58, 59 art., diru-kopuru galdagarria finkatzeko irizpideak).

4. OBLIGATU GANBIARIOEN ERANTZUKIZUN SOLIDARIOA

LCCh 57 artikulua araberan obligatu ganbarioak, ganbio-letra sinatu dutenak, solidarioki erantzule dira edukitzailearen aurrean. Beraz, ordainketa ezaren aurrean, edukitzaileak edozein obligatu ganbarioen kontra (baten kontra nahiz guztien kontra) dagozkion akzioak jar ditzake. Erantzukizun solidarioa duten subjektuak dira: igortzailea, endosugileak (beren erantzukizun ganbarioa salbuetsi ez badute), onartzailea (onarpen partziala egin dezake) eta abalemaileak (bermea mugatu dezake) baina baita ere *falsus procurator*. Ganbio-letraren edukitzaileak eskubidea du hauen guztien aurka ekiteko, modu bateratuan, inolako ordenarik errespetatu behar izan gabe. Baina baita ere posible da bat edo batzuren aurka ekitea.

Solidaritate ganbarioa desberdina da zuzenbide zibileko solidaritatearekiko (KZ 1137 art.). Hasteko, zuzenbide zibilean alderdien arteko itun espresua behar da eta eremu ganbarioan legez ezarrita dago (LCCh 57 art.), nahiz eta subjektu batzuk beren erantzukizunaren maila modulatu dezaketen. Zuzenbide zibilean solidaritatea negozio juridiko bakar batetatik eratortzen da eta solidaritate ganbioa, berriz, negozio juridiko anitzen ondorioz.

Zuzenbide zibilean obligazio solidarioa galdagarria denetik, hartzekodunak edozein zordunen kontra ekin dezake, zordun baten kontra edo zordun guztien kontra. Zuzenbide ganbarioan, ordea, zenbait formaltasun bete behar dira, batez ere oro har, onarpenerako edo ordainketarako aurkezpena egitea eta protesta edo aitorpen baliokidea jasotzea. Akzioen preskripzioari dagokionez, zuzenbide zibilean preskripzio-epea eteteak hartzekodun eta zordun guztiei kalte edo mesede berdina ekartzen die, baina zuzenbide ganbarioan epe hori eteteak efektu pertsonalak ditu etendurako egintza dagokion pertsonaren alde (LCCh 89 art.). Gainera, zuzenbide zibilean zordun batek ordaintzen duenean bukatzen da solidaritatea. Honek gainontzeko zordunen kontra birpoltsaketako

akzioa dauka, bakoitzari dagokion kopurua galdatzeko (KZ 1145 art.). Zuzenbide ganbarioan, aldiz, ordaintzen duenak ganbio-letra eskuratzen (erreskatatzen) du eta berekiko obligatu direnen kontra erreklamatzeko eskubidea dauka ordaindutakoa eta gastuak birpoltsatzeko (LCCh 57, 59 art.)

5. AKZIO KAUSALA

Ganbio-letraren inguruan bi akzio edo uzi mota bereizten dira: akzio ganbarioa eta akzio kausala. Akzio ganbarioa (zuzena nahiz atzerabidekoa) ganbio-letratik eratortzen den obligazioan oinarritutakoa da eta zuzenbide ganbarioaren araudi berezia ezartzen zaio. Akzio kausala, ordea, ganbio-letraren oinarrian dagoen obligazioari dagokiona da (salerosketari, maileguari, akurapenari ...) eta haren araudipean dago. Bi akzio-mota hauek desberdin dira, baina horrek ez du esan nahi independenteak direnik. Biek helburu bererbera dute, tituluaren hartzekodun eta edukiztaile denari ordaintzea. Hori dela eta akzio kausala obligazio ganbarioaren eremuko zenbait inguruabarren menpe aurkitzen da. KZ 1170 artikuluan jasotzen dira akzio kausala jarri ahal izateko baldintzak.

Hasteko, esan behar da KZ 1170 artikuluko II eta III lerroaldeak balio-tituluei aplikatzen zaizkiela soilik, nahiz eta '*y otros documentos mercantiles*' espresioa azaldu. Gainera ez zaie balio-titulu guztiei aplikatzen, bakarrik diruzko obligazio bat ordaintzeko diruzko obligazio bat atsekitua duten tituluei (ganbio-letra, txeke, zor-agiri eta analogoak). Hauetariko titulu ganbarioaren bat sinatu eta entregatzeko helburuak oso desberdinak izan daitezke: bermezkoak, mesedezkoak, ordainketakoak (*causa solvendi*) ... Azken kasu honetan, ordainketako helburua gauzatzeko entregaren efektuak izan daitezke *pro soluto* edo *pro solvendo*. Entrega *pro soluto* efektuekin egiteak esan nahi du tituluaren entregak ordainketaren balioa duela, hau da, obligazioaren konplimentuaren balioa. Ondorioz titulu ganbarioa entregatzearen azpian dagoen obligazio kausala iraungi egingo litzateke. Baina legez hau ez da posible ezinezkoa izango litzatekelako KZ 1170 artikuluko II eta III lerroaldeak aplikatzea. Beraz, titulu ganbarioak ordainketaren bat gauzatzeko helburuarekin entregatzen direnean *pro solvendo* efektuak izango dituzte. Titulua entregatuko da ordainketa egiteko modu bezala eta '*amaiera onik ezean*' (*salvo buen fin*). Hori da, hain zuzen, KZ 1170 artikuluko II eta III lerroaldetako ideia. Beraz, alderdiek beren harreman kausalak burutzeko titulu

ganbiario bat igortzea eta/edo entregatzea erabakitzen dutenean, *pro solvendo* egiten dutela ulertu behar da.

Horren ondorioz, titulu ganbiario baten jatorrian dagoen negozio kausaletik eratortzen den akzioa baliatzeko zenbait muga ezartzen dira salbuespen (*exceptio*) moduan. Mugapen hauekin ordenamendu juridikoaren helburua obligazio ganbiarioaren eta obligazio kausalaren existentzia eta funtzionamendu independenteak koordinatzea da. KZ 1170 artikulua bidez ezartzen dira negozio kausaletik eratortzen diren akzioei titulu ganbiario baten existentziak ekartzen dizkien mugapen edo baldintzak.

Lehenengo mugapena titulua entregatzeagatiko salbuespena da (*excepción de entrega de título*). Hori da akzio kausala baliatzen duenari auziperatuak jar diezaioken salbuespena, akzio kausala subsidiarioa bait da. Ganbio-letra (baita zor-agiria eta txekea ere) *pro solvendo* efektuekin entregatzeak esan nahi du ordainketa egiteko helburuarekin egiten dela (azpiko obligazioa betetzeko helburuarekin) eta hala izango dela beti ere amaiera ona izanez gero (*‘salvo buen fin’*). Ondorioz, titulua jasotzen duen hartzekodunak ezin du akzio kausalaz baliatu, aurretiaz titulu ganbiarioak eskaintzen dizkion bideak agortu ez baditu. Titulua *pro solvendo* efektuekin entregatzen denez, lehendabizi tituluari dagozkion bideak erabili behar dira eta akzio kausala subsidiario bihurtzen da. Honen arrazoia da alderdiek beren harreman kausala ordaintzeko titulu bat entregatzea itundu dutenean obligazio kausala baldintza esekitzailerik baten pean utzi dutela eta ondorioz hartzekodunak erreklamazioa egiterakoan lehendabizi bide ganbiarioak erabili beharko dituela (nahikoa da erreklamazio extrajudiziala, ad. letra kobratzeko aurkeztu izana). Bitartean, obligazio kausala esekita geratzen da. Akzio kausala berpiztuko da titulua ordaindu gabe geratzen bada. Baldintza horren aplikazio analogikoa eginez, akzio kausala baliatzeko aukera sortuko da baita ere ganbio-letra ordainketa lortzeko tresna desegoki bihurtzen duten zenbait inguruabar agertzen denean (LCCh 50 art.): igorpenduak onarpena ukatzen duenean, igorpenduaren kaudimengabezia gertatuz gero edota igortzailearen kaudimengabeziazko kasuan, letra *‘onartezina’* (*‘no aceptable’*) bada.

Bigarren mugapen edo baldintza hartzekodunak titulua *ex causa* zordun denari titulua itzultzea da. Hartzekodunak bere uzia galdatu ahal izateko, titulua itzuli behar dio zordunari. Beste era batean esanda, zordunak titulua berreskuratzeko eskubidea du, hala gertatzen ez bada, kreditu kausalaren

ordainketaren aurka salbuespena jar dezake (LCCh 45 eta 69.II art.). Salbuespen honekin zordunari ordainketa bi bider galdatzea (*ex titulo* eta *ex causa*) galera nahi da.

Hirugarren salbuespena '*tituluaren egikaritzea*' (*realización del título*) deiturikoa da. Zordunak bere hartzekodunak jarritako akzio kausala geldiarazi dezake salbuespen hau erabiliaz. KZ 1170.II artikuluan '*producirá los efectos del pago*' esaldiak esan nahi du obligazio kausala iraungi egingo dela (KZ 1156.I art.), '*titulua egikaritutakoan*' (*cuando hubiesen sido realizados*), hau da, ordaindutakoan. '*Titulua egikaritzea*' da hartzekodunaren interesa (interes kausala) behin betiko betetzea. Titulua *pro solvendo* entregatzen denez (ordainketa-moduan eta 'amaiera onik ezean'), akzio kausalak bizirik iraungo du, hartzekodunaren interesa betetzen ez den artean. Baina hartzekodunaren interesa behin betiko betetzen den kasuetan (tituluaren egikaritze kasuetan) akzio kausala galdu egingo da. Hartzekodunaren interesa behin betiko bete izan den kasu horietan '*titulua egikaritzearen salbuespena*' erabili ahal izango da. Hau gertatzen da tituluarekin hartzekodunak kobratu duenean, hau da, bere jabegoan kredituari dagokion balioa sartu izan denean, balio hori itzularazteko arriskutik kanpo geratuaz, adibidez: ganbio-letraletarren ordaindutakoan, konpentsazio kasuan, tituluaren salmenta gertatuz gero edota titulua '*pro soluto*', '*sine obligo*' bezalako klausularekin endosatu bada. Beraz, akzio kausala iraungi egiten da, titulua medio, hartzekodunari behin betiko ordaintzen zaionean. Baina akzio kausala esekita, suspensoan, geratzen da tituluaren bidez bere interesa betearazten saiatzen ez den artean.

Laugarren salbuespena '*tituluaren kaltea eta preskripzioa*' dira (KZ 1170 II art.). Titulua kaltetu izanaren salbuespena (*se hubiesen perjudicado*), '*kaltea*' gertatzen da ganbio-letraren edukitzaileak eduki beharreko arreta berezia ez edukitzeagatik atzerabideko akzio ganbarioak galdutakoan. Edukitzailearen arreta bereziari dagozkion betebeharrak dira: ganbio-letra ordainketarako aurkeztea eta protesta edo aitorpen baliokidea egitea. Salbuespen honen izaera ganbarioa izan arren, *ex causa* zordun denak akzio kausala geldiarazteko erabili dezake.

Dena den, KZ 1170 artikuluko II lerroaldearen idazkera dela eta, salbuespen (*exceptio*) honen inguruan zenbait zehaztapen egitea komeni da. Arau hau behar bezala aplikatzeko, argi utzi behar da II lerroalde honek obligazio kausalaren iraungipena ezartzen duela, baina ez titulua bera 'kaltetzeagatik',

tituluaren 'kalteak' *ex causa* zordun denari 'kaltea' sortzeagatik baizik. 'Kalte' hori zordunak atzerabideko obligatuen aurka aritu ahal izateko duen akzio ganbiarioa galtzea da. Atzerabideko akzioa galtzearekin sortzen da kaltea, nahiz eta zordunak bere interesa lortzeko beste bide batzuk izan. Ondorioz, arau hau aplikatzerakoan zenbait kasutan bere eremua teleologikoki murriztu egin beharko da eta bestetan ordea analogikoki hedatu.

- Demagun ez dagoela zordunaren ondoren atzerabideko akzioa erabili ahal izango duen obligatu ganbriorik (ad. zorduna igortzailea bada). Kasu honetan ganbio-letraren 'kalteak' ez du inongo eraginik izango. Zordun kausalari ez zaio inolako 'kalterik' sortuko nahiz eta berak titulua 'kaltetua' jaso. Tituluak berdin berdin balio dio onartzailearen aurka akzio zuzena jartzeko. Beraz, kasu honetan, ganbio-letra 'kaltetzeak' ez du edukitzailearen akzio kausalik galerazten, ezin izango da salbuespen moduan erabili (murriztapen teleologikoa).
- Demagun ganbio-letra preskribitu egiten dela. Preskripzioa eta 'kaltea' ez dira gauza bera. Baina, teknikoki fenomeno desberdinak izan arren ondorio berbera dutenez, araututako supostuaren hedapen analogikoa onartu behar da (KZ 4.I art.). Hartzekodunak akzio kausala baliatu eta zordunari preskribitutako titulu bat emanaz gero, honek ez lioke atzerabideko obligatuen aurka ekiteko balio izango, hauek edozein momentutan akzioa geldiaraziko lukete tituluaren preskripzioa alegatuaz (hedapen analogikoa). Dena den, ez dira nahastu behar kreditu kausalaren preskripzioa eta kreditu ganbiarioarena. Bataren preskripzioak ez du bestearena ekartzen, independenteak dira.

Edozein kasutan, tituluaren kalteaz edo preskripzioaz ari garenean, hartzekodunak zabarkeriaz (negligentziaz) aritu izana eskatzen da (*'por culpa del acreedor'*). 'Zabarkeria' esatean zuzenbide ganbiarioaren arabera ulertu behar da, nahiz eta Kode Zibileko kontzeptua izan. Zuzenbide ganbiarioko zenbait betebeharrak eta formaltasunak ez betetzeari erreferentzia egiten dio. Bere helburua zordun kausala babestea da, baina hartzekoduna ere ez da erabat babesik gabe geratzen, subsidiarioki badu aberaste ganbiarioaren akzioa (LCCh 65 art.).

6. ABERASTE GANBIARIOAREN AKZIOA

LCCh 65 artikuluan arautzen da akzio hau. Zaila da akzio ganbarioen edota kausalen artean kontzeptualizatzea, batzuren nahiz besteren akzio subsidiario moduan eratua izan delako. Propio izaera ganbariodun akzioa izan ez arren, ganbio-letratik eratortzen da eta, ondorioz, aberaste ganbarioaren akzioa jarri nahi duenari galdatzen zaio: LCCh 1 artikuluko galdapenekin igorritako ganbio-letra izatea eta legezko edukitzailea izatea.

Ez da ordea, akzio ganbarioa zentzu hertsian. Akzio ganbarioan, edukitzaileak subjektu bati edo batzuri diru-kopuru bat galdatu ahal izateko oinarritzen da haiek eginiko sinaduran (inter tertios) edota entrega-kontratuan (inter partes). Baina aberaste ganbarioaren akzioaz baliatzeko funtsa, berriz, justiziazko arrazoiak dira. Honen bidez edukitzaileak ganbio-letraren kopurua inongo kontraprestazioren truke jaso izan duenarengandik berreskuratzeko aukera izango du, nahiz eta dagoeneko tituluan edota azpiko harremanean oinarrituz galdatzeko modurik izan ez. Konponbide izaera duen akzio honi *ezbidezko aberastearen akzioa (enriquecimiento injusto)* edo *aberraste ganbarioa* deritzaio.

Akzio hau bigarren mailakoa da, subsidiarioa (*‘cuando el tenedor hubiere perdido la acción cambiaria ...’*). Badirudi *in extremis* egoerei justiziazko konponbide bat emateko pentsatua izan dela. Akzioa baliatzeko supostu desberdinak egon daitezke. Gerta daiteke edukitzaileak obligatu guztien aurkako akzio ganbarioa galdu izana. Hau da suposturik arruntena onartugabeko letratan, atzerabideko akzioa galtzea da. Aldiz onartzailearen aurkako akzio zuzena ez da galtzen, beretzat legeak ez du formaltasunik betetzea galdatzen. Gerta daiteke ere edukitzaileak obligatu ganbarioen aurka akzio kausalik ezin baliatzea KZ 1170 artikulua aplikatzearen ondorioz. Posible da ere obligaturen bat aberastu izana, titulutik eratortzen diren eskubideak babesteko legeak galdatzen dituen baldintzak ez betetzeagatik.

Baina nori dagokio ez-bidezko aberastea gertatu izan dela frogatzea? Galdera honi erantzuteko ere supostu desberdinak bereiztu beharko dira. Auziperatua igortzailea bada, ganbio-letra berak igorri du, baina fondoan hornidura egin duela presumitzea gehiegizkoa dirudi. Horregatik berak frogatu beharko du horniketa egin duela. Auziperatua, berriz, endosugileren bat bada, doktrinaren

gehiengoak iritzi dio, ganbio-letra bere eskutara iritsi ahal izateko aurretiaz balutaren bat despoltsatu beharra izan duela. Horregatik ez-bidezko aberastearen froga auzi-jartzaileari egotziko litzaioke. Auziperatua onartzailea izatearen kasuan, bera da ganbio-letraren balioa ordaindu behar duen obligazio nagusia, beraz akzioa geldiaraztea berari dagokio (Ad. mesedeko letra bat sinatu izan duela). Abalemaileak, berriz, ez dira aberasten.

Legitimazio aktiboari dagokionez, akzio hau soilik ganbio-letraren edukitzaileari dagokio eta gainera bere jabegoan kalteren bat jasan behar izan du. Adibidez, ahalordetzarako endosu-hartzailearen kasuan, honek ezingo du akzio hau baliatu, agindu-emaileari ganbio-letraren kopurua ordaindu behar izan duela demostratzen ez duen artean behintzat.

Akzio honetaz baliatzeko epea akzio-ganbiarioa iraungi denetik hiru urtekoa da.